

Behia ala hegaztia?

Venezuelako baso tropikalean bizi den Hotzin izeneko hegaztia azken urteotako aurkikuntzarik xelebreena izan daiteke. Punky itxura nabarmena duela eta 25 milioi urte sortu zela diote Cornell Unibertsitateko ikerlariak. Orain arte esandakoa arruntzat jo badaiteke ere, ezusterik handiena hotzin-aren liseri-aparatua aztertzean atzeman zuten: ikerlariak diotenez, hausnarkarien familia berekoa izan daiteke doi-doi 30 cm-ko luzera duen hegazti txiki hau. Hotzina bizi den lekuan, Venezuelako baso he-

Ikerlariak diotenez, hausnarkarien familia berekoa izan daiteke doi-doi 30 cm-ko luzera duen hotzin izeneko hegazti txiki hau.



zeetan, landare pozoi-tsuak nonahi aurki daitezke. Gainerako animalientzat hilkorrak diren landareak elikagai ezin-hobea da hotzinentzat. Bere liseri-aparatuak fermentazio-upelarena egiten du, landare hilgarrien substantziak txikitu eta absorbituz.

Cornell Unibertsitateko biologoek 1989an ekin zioten hotzina ikertzeari eta ondorioz aipagarriena hausnarkariekin lotu izana da.

Galapago irlak mehatxupean daude

Darwinek mirestu zuen paradisia galtzeko zorian dago. Hango eremuan oinarrituta Garapenaren Teoria kaleratu zuen ikerlariak eta orain, neurrigabeko arrantzak eta horri aurre egiteko gaitasun-ezak Galapago Irlak mehatxupean jarri dituzte. Mundu osoko talde ekologistek eta zientzilariei dei egin diete bertako ikerlariak Ekuadorreko Gobernuaren presioa dezaten. Bitartean, inguruan gertatzen ari denaz oharturik, Irletako jatorrizko biztanleak diren *Isostichopus fuscus* izeneko dordokak urritzen ari dira. Azken 4 urteetan % 10 gutxiagotu ei da dordoka-populazioa Galapago Irletan. Garapenaren katea ulertzeko bidea eman zuen izakia eta irletako biztanleen bizimodua galdu



Garapenaren katea ulertzeko bidea eman zuen izakia eta irletako biztanleen bizimodua galdu egin daitezkeela diote ekologistek, bertako arrantzaleek kontrakorik esaten badute ere.

egin daitezkeela diote ekologistek, bertako arrantzaleek kontrakorik esaten badute ere.

Gaur egungo egoera ulertzeko, arrantzaleen eta Gobernuaren arteko liskerrak kontutan hartu behar dira. Lehenek egindako presioaren aurrean amore emanez, arrantza-baimena hiru hilabetez luzatzea onartu egin zuen Gobernuak. Epe horretan soilik, 500.000 dordoka harrapatu omen zituzten sareetan, arrantzako denboraldi osoan kopurua 7 milioietara iritsi zelarik. Gobernuaren aginduz, abenduan amaitu zen arrantza-denboraldia Galapago Irletan. Arrantzaleek ez zuten erabakia aintzakotzat hartu eta sareak jaurtitzeko segitzez gain, dordokak suntsitzeko mehatxua egin zuten. Egoera honen aurrean, bederatzi hilabetez arrantza debekatzeko agindua eman zuen Gobernuak. Talde ekologistekin eta turismo-era-

kundeekin hitzartutako agindua izan zen. Bat dotoz guztiak Galapago Irlen etorkizuna jokoan dagoela esatean. Dordokak, bitartean, Galapago Irletatik ihes egiten hasi dira.

Ederra eta piztia

Argazkiko lore bikaina ederra bezain arriskutsua izan daiteke. Hala uste izan du Maitland Hiriko Epaitegi Gorenak eta "Aingeruaren Tronpeta" izenez ezagutzen den landarea debekatzeko erdietsi du. *Brugmansia x candida* da bere jatorrizko izena. Maitland hiriko zenbait gaztek ongi baino hobeto daki landareak berak eta bere ostioak egosiz lortzen den infusioak dituen ezaugarrien berri. Izan ere, urteetan, droga bezala erabili izan dute Florida osoan,



etxeetako jardinetan eta kaleetan erraz topatzen baita. Iazko gertakariak kontutan hartuta, ordea, *tronpetaren* hotsa isilaraztea beherrazkotzat jo dute. Maitland-eko ospitaleetan 112 gazte ingresatu behar izan zituzten iaz, guztiak *Brugmansia*-ren edo Aingeruaren *tronpetaren* gaidosiak jota. Horietarik bi ordu batzuetara hil egin ziren aluzinazio bortitzen ostean. Hiriko Epaitegi Gorenak kaleratu duen txostenean irakur daitezkeen beste edozein drogak sorraraz lezakeen efektu bera lortzen omen zuten gazteek



112 gazte ingresatu behar izan zituzten iaz Maitland-eko ospitaleetan Aingeruaren *tronpeta* izeneko landarearen gaidosiak jota.

Brugmansia lorearen hostoak egosi eta infusioan edanez. Burmuinean eragiten dituen kalteak eta aluzinazioetan gazteek pairatzen duten eromen-egoera direla eta, Epaitegiak debekatu egin du *Brugmansia* berriak landatzea.

Gorilak lainoan

Uganda, Ruanda eta Zaireko gobernuek erronka handiari aurre egin beharko diote hurrengo hilabeteotan. Gauzak ongi, urtea bukatu baino lehen Naturgune berria zabalduko dute lurralde hauetan, gorilak babestu eta hauen iraupena mehatxatzen duen giza eragina gutxiagotu asmoz. Ez da zeregin erraza izango. Une honetan, 650 gorila inguru bizi da eskualde honetako mendietan, gorila-komunitaterik handiena Virunga sumendi-katearen inguruan finkatu delarik. Orain arteko esperientziarik positiboena 1992an abiarazi zuten, Mgahinga Parke Nazionala izendatu zutenean. Gorilen Babesarako Erakunde sortuberriaren ekimenez, ekoturismoan oinarrituriko eredia ezarri zuten. Honen bidez, gorila-populazioaren hazkundera arriskuan jartzen duen turismo basatia saihestu nahi izan dute. Lortu denik ezin da oraindik esan, baina bide onetik ari direla uste dute erakunde ekologistek. *Panos* berri-agentziak dioenez, gorilak babesteko neurriek populazioaren hazkundera lortu ez badute ere, eredia hedatzera edanez koan arriskutsutzat jotzen diren praktikak gutxiagotu egingo dira. Gorilak ehizatu eta beren esku zein buruak oroi-garri gisa eramaten dituzten bisitariak dira etsai nagusiak. Ez ordea ba-



karrak. Bertako nekazariak ez dute begi onez ikusi Ugandako Gobernuak ezarri duen babes-eremua. Gorilak izan ere ez dira bizilagun eroso suertatu, nekazaritzarako behar dituzten lurak okupatu eta landatutakoa txikitu egiten dutela eta.

Uganda, Ruanda eta Zaireko gobernuek erronka handiari aurre egin beharko diote hurrengo hilabeteotan. Gauzak ongi, urtea bukatu baino lehen Naturgune berria zabalduko dute lurralde hauetan, gorilak babestu asmoz.

rrak nonahi aurki daitezke bertan. Batez beste, babesgarritzat jotzen diren 369 landare-espezie zenbatu dituzte urtegiak urperatuko duen eskualdean. Horietatik 31 munduan beste inon aurki ez daitezkeenak direla uste da. Landareekin batera hauei buruzko jakintza ere galdu egingo da, inon idatzi gabe belaunaldiz belaunaldi hitzez pasatu baitiote elkarri. Narmanda ibaiak berak ohikoak dituen inkilino asko galduko du. Urtegi-rako lanak hasi zirenez geroztik, anitz espeziek alde egin behar izan du. Orain arte poluzioak, neurrigabeko arrantzak eta espezie berrien etorrerak mehatxatu badi-tuzte ere, urtegia etsai berria bilakatu da Narmanda ibaiaren arrainen-tzat.

Urtegiaren arriskuak

ndiako Narmanda ibaiaren ibilbidean bi urtegi handi eraikitzeke proiektua martxan da jadanik. Lanak amaitzerako, 160.000 lagun eta ehundaka animalia espezie etxerik gabe gertatuko dira, noraezean. Urtegiak, izan ere, eskualde osoko oreka ekologikoa eta habitata apurtu egingo dute eta gaur egun desagertzean dauden espezieak iraungi egingo direla diote biologoek. Eskualde honetako abertasuna ikaragarria da. Animaliaz gain, sendabela-

